

San Migel zubiko borroka

Paseando por el puente de San Miguel, frecuentemente me paraba a leer la dedicatoria al capitán inglés muerto allí y me preguntaba si sus descendientes sabrían que estaba en aquel lugar enterrado, tan lejos de su propio país…

Hace unos meses me decidí a entrar en Internet , esa gran biblioteca y fuente de información universal ,(ongi aukeratuz gero), llevándome una gran sorpresa: hay docenas y docenas de documentos , textos y diarios escritos en lengua inglesa por soldados y oficiales que tomaron parte en las batallas contra Napoleón, entre ellas la del puente de San Miguel, que,segun esas fuentes inglesas, resulta ser una de las acciones más espectaculares de las guerras napeoleónicas: 10.000 soldados franceses contra 70 ingleses,todos ellos en los alrededores del puente de San Miguel, a un paso de vuestras casas… Es sorprendente la cantidad de detalles que suministran dichos escritos.

He aquí una especie de resumen de los textos leídos:

Hasteko: erderaz eta ingelesez zubi gaineko oroitarrian jartzen duen itzulpena ez da transkipzio bera:

Erderaz jartzen du: "murieron defendiendo este puente por la independencia de España en unión de sus heroicos compañeros españoles".

Ingelesez ez da aipatzen "Espainia" , ezta espainar lagunak ere. Bakarrik: " ingelesek babestu zutela zubia eta borrokatu zutela frantsesen kontra…."

Gainera, soldadu espainar izatekotan oso gutxi izango ziren,gehien bat ingelesak eta portugaldar batzuk Bidasoa eskualdeko armada osatu zuten.

Jakina, galdera asko egin beharko genituzke gure buruari: zer egin zuten ingelesek Beran, zergatik ziren Espainiaren alde? Haiek ere ez ote zuten nahi inperio bat ezarri?

Nire ustez soldadu ingelesak guztiz profesionalak ziren : hau da, gudaz, borrokaz egiten zuten beren bizitza, eta hortaz bizi ziren, mertzenario hutsak, bost axola nora joan behar zuten….horixe baitzen beren lanbidea…

Beste ohartxo bat: web orrialde batzuetan erderaz egindako itzulpena hobe ahaztea ez baita ezer ulertzen(ordenagailuz programa baten egindakoa da eta).

Beno goazen harira: urtea: 1813. Irailaren

1ean. Goizaldeko hirurak. Izugarrizko euri zaparradak izan ziren gauan zehar eta Bidasoa ibaia gainezka zetorren..

Donostiatik 10.000 soldadu frantzesak zetozen. Beren burua Vandamme generala zen. Ezin zuten Bidasoa zeharkatu Behobiako bidetik eta San Migel zubitik joatea aukeratu zuten. Hemen 70 soldadu ingelesak ziren beren zain. Hasi ziren denak tiroka , ingelesek oso punteria ona omen zuten, baina hainbat soldadu frantses ikusita, Daniel Cadoux, ingeles kapitainari, zubia uzteko eta erretiratzeko agindu zioten.

Hala edo nola Cadouxek gau guztia jasan zuen, bakarrik soldaduen balak bukatu zirenean utzi zuten zubia . Azkenean frantsesek San Migel zubia zeharkatu zuten.

Ordurako 17 soldadu ingeles hil , 42 zaurituta eta 2 desagertuak ziren.

Frantses armadan 42 hil , 185 zauritu eta 4 desagertuak ziren.

Imagina dezakegu nola geratu zen zubia eta eszenatoki guztia: hilotzez eta sarraskiz beterik, Bidasoako urak bere altuera normalera jaitsi zirenean , haizeak hildakoen kiratsa zabaldu zuelarik.

Kronikek ere esaten dute Cadoux "rather effeminate" zela eta, aldi berean, adoretsua eta ausarta. Soldaduek miresten omen zuten . Skarrett Generala berriz ezgai omen zen ezbaizituen bidali Santa Barbaran egondako errefortzuak San Migle zubira.

Beste pasadizo bat kontatzen da Cadoux kapitanari buruz: hil zenean 150 guineako eraztuna zeramalarik, soldadu ingeles batek kendu nahi izan ziola. Ezin izan zuenez labaina erabili behar izan zuen…. Eraztun baliogarrioa eskaini omen zien bere buruei . Hauek, jakina , galdetu zioten nondik atera zuen eta ondorioz soldaduak 150 zartadak jaso zituen.

Beste lekukoaren arabera kontrabandoa ohikoa omen zen herrian, ingelesek afari berezia egin behar zutenean, "gaueko langilei" eskatu behar zizkieten edariak eta janariak….

Beran gertatutako bigarren borroka urriaren 7an gertatu zen: the Star Fort(Izar gotorlekua, Gartzin- Peña Rata?) eta Hog´s back(txerriaren bizkarra) berreskuratze helburua izan zelarik. Frantsesek 1.300 biktima izan zituzten eta ingelesek 850 hildakoak.

Beste borroka bat izan omen zen: Larrun Txikin , azaroan 10an . Geroztik frantsesek atzera egin zuten Baiona aldera.

Etxalarren eta Igantzin ere borrokatu zuten bi armadek.

Bukatzeko azken hausnarketa: nortzuk ziren benetako galtzaileak?: frantsesak edo euskal herritar batzuk , (zibilak,baserritarrak, besteak beste….) .

Beste aldetik, burdindegietan negozioa egiten zutenek etekina aterako zutelakoan nago….

Edozein kasutan ere hauek kontu txikiak izan dira historian zehar.

Hemengo gertakizun inportanteenak industrializatzioa izan da. Batez ere 60. hamarkadan .

Ea norbait animatzen den hemengo festetako programan egoera hau aztertzeko….

Juanjo Irazoki Errandonea

SEDENORT S.L.

SERVICIO INTEGRAL DE MANTENIMIENTO E INGENIERIA PARA INSTALACIONES INDUSTRIALES

ASESORÍA, FORMACIÓN Y COMERCIALIZACIÓN DE PRODUCTOS OMRON

ADECUACIÓN DE MAQUINARIA AL REAL DECRETO 1215/1997

DESMONTAJE Y MONTAJE DE MAQUINARIA INDUSTRIAL

BIDASOA, 76
31780 BERA (Navarra)
Tfno./Fax: 948 625009
general@sedenort.com